| | |
|---|---|
| **Espediente: 2HI-88/14-P05-A**<br>**ARTEA**<br>Arau Subsidiarioen 4. Aldaketa puntuala: Gazteluko lurzoru urbanizagarriari buruz. | **Expediente: 2HI-88/14-P05-A.**<br>**ARTEA**<br>4ª modificación puntual de las NN.SS.: sobre la SAPU Gaztelu. |

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN BIZKAIKO HIRIGINTZA PLANGINTZA ATALEKO IDAZKARIAK

HONAKO HAU ZIURTATZEN DUT: Bizkaiko Hirigintza Plangintzaren Atalak otsailaren 18an egindako 1/2015 Osoko Bilkuran batzordekideen gehiengo osoa osatu zuten bertaratutakoek, eta, besteak beste, jarraian azaltzen den akordioa aho batez onartu zuten:

"**I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:**

I. Arteako udalerriko "Arau subsidiarioen 4. aldaketa puntuala: Gazteluko lurzoru urbanizagarria." espedienteari eragozpenik ez jartzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea eta honako hauek betetzeari dagokionez: Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen lurralde-antolamenduko tresnak, eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean adierazitako alderdiak.

II. Dokumentazioari gehitu beharko zaizkio Espazio Libreen Sistema Orokorren lurzoruen kokapena eta mugaketa. Zuzenketa hori egindakoan, 2/2006 Legearen 105.7 artikuluko baimena emantzat ulertuko da, beste izapiderik egin beharrik gabe.

III. Kontuan hartu beharko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorrean eta hori aldatzen duen 2/2014 Legean ezarritakoari jarraiki, Hiri-antolamenduko Plan Orokor eta Plangintzako Arau Subsidiario guztiak lege horien xedapenetara egokitu beharko direla.

**II.- Uraren arloan:**

URA-Uraren Euskal Agentziak, 2015eko otsailaren 10ean, aldeko txostena egin zuen, honako erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzapean:

- Behin betiko onartu aurretik, espedienteak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren txostena jasoko beharko du; horrela, sortzen diren

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA SECCIÓN DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO DE BIZKAIA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

CERTIFICO: que en la Sesión 1/2015, de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Bizkaia celebrada el día 18 de febrero, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguiente acuerdo:

**"I. En materia de Ordenación Territorial:**

I. No poner objeción al expediente de "4ª Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias: SAPU Gaztelu", del municipio de Artea en lo que respecta al cumplimiento de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, a su adecuación a los instrumentos de Ordenación Territorial de la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco y a los aspectos señalados en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos Forales de sus Territorios Históricos.

II. El documento deberá incorporar a la documentación la localización y delimitación de los suelos de Sistema General de Espacios Libres. Realizada tal subsanación se entiende otorgada la autorización del artículo 105.7 de la Ley 2/2006, sin necesidad de mayor tramitación.

III. Se deberá tener en cuenta que, en cumplimiento de lo establecido en la Disposición Transitoria Segunda de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo y de la Ley 2/2014 que la modifica, todos los Planes Generales de Ordenación Urbana y Normas Subsidiarias del Planeamiento deberán ser adaptados a las determinaciones de las Leyes mencionadas.

**II- En materia de Aguas:**

El informe de URA-Agencia Vasca del Agua de 10 de febrero de 2015 es favorable de manera condicionada al cumplimiento de la siguiente condición de carácter vinculante:

- Previamente a su aprobación definitiva el expediente deberá contar con un informe del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia/Bilbao

hornidura eta saneamenduaren behar berriei zerbitzua emateko behar bezalako azpiegitura eta baliabideak egotea ziurtatutako da.

**III**. Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari ondokoek egindako txostenak bidaltzea: URA-Uraren Euskal Agentzia (I. eranskina), eta Etxebizitza Sailburuordetza (II. eranskina). Ziurtagiri horiek erantsita doaz."

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2015eko otsailaren 18an.

Bizkaia Ur Partzuergoa que justifique la existencia de infraestructuras y recurso suficiente para atender a las nuevas demandas de abastecimiento y saneamiento que se generen.

**III**. Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por URA. Agencia Vasca del Agua (Anexo I) y por la Viceconsejería de Vivienda (Anexo II), que se acompañan a la presente certificación."

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 18 de febrero de 2015.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEA - ATALA -

Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga